

nahita sartu zen. «Bere horretan lagako dugu».

Txomin Garmendiarentzat gizon atsegina, jatorra zen Kaxiano: «Hiztun egokia zen. Zi-riak, txisteak... egiazko euskal-
dun batek behar duen umorea zuen». Berrobin festetan plaza-ko lanak egin ondoren tabernan zeudela gertatuko anekdota ekarri du gogora Garmendiak: «Gure artean bazen mutil txiki bat, eta hura han ari zen, isildu gabe hizketan. Eta honela esan zion Kaxianok: 'Hik bajutik hitz egiten dek, eh?'. Hori nik esan izan banu inork ez zion graziarik hartuko, baina itsu batek hura esatea...».

Berrobiko bertsolariaren esanetan jende askok pena hartzen zuen Kaxiano ikustean: «Itsua zelako gehiago maitatua izan zen zenbait lekutan, baina berak hori gainditua zuen. Adibidez, musean ederki egiten zuen, karta bereziekin noski. Festara joan eta neska artera bera bakarrik joateko gai zen! Ez zuen eragozpenik itsua zelako, gainerako jendeak igual bai».

Lizasoren ustez «buelta» emana zion itsutasunari: «Bera-ri aditu izan nion zintzurra piska bat berotuta zegoela —orduan errazago hitz egiten baita—: 'Orain Jainkoari eskerrak ematen jarduten nauk, itsutu ez baintz ez nindukeen-eta horrela bizikol'».

Gizonaren gauzarik harrigarriena, ordea, bere azkartasuna zela esan digu Mikel Markezek: «'Kaixo Kaxiano!' esan eta berehala ezagutzen ninduen. Oso gauza harrigarria zen guretzat hiru edo lau urte berarekin egon ez, baina hala ere, ezagutzea». Ezaugarri bera, haren azkartasuna, nabarmendu digu Joxe Mari Iriondo kazetariak: «Bere bi gauza azpimarratuko nituzke: umorea eta intelijentzia».

Martxoaren 19an, San Jose egunean, omenaldia egingo diote Azpeitian. Iriondo ari da hori antolatzen, eta jaialdiaren harira, duela egun batzuk Lizartzan izan omen zen Kaxiano bi-



SENDOA / XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA

BERTSOLARIEN ARTEAN. Ezkeretik eskuinera, Jose Manuel Iztueta *Lazkao Txiki*, Jose Luis Lekuona *Lexoti*, Kaxiano eta Patxi Etxeberria Ordizian, 1960. urtean egin zen bertso saio batean.

DISKOAK

- *Itsas ontzi baten* (1986)
- *Baserritik kalera* (1987)
- *Nere oroigarri* (1989)
- *Ongi etorria* (1990)
- *Lizartzako oihartzuna* (1992)
- *Antzuolari* (1994)
- *Soinu eta kantu* (1996)

(Elkarlanean disketearekin argitaratu ditu)

sitatzen: «Bere semeak esan zidan ez zela egun horretara bizirik iritsiko, baina berdin dio, bizirik edo hilik Lizartzako Itsua omenduko dugu». Txomin Garmendiaren arabera tristeak izan dira Kaxianoren azken urteak: «Eguberriak aurretik egon nintzen bere etxean, eta oso triste ikusi nuen. Jada ez zitzaion hizketarako ezer sortzen».



SENDOA / XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA

BERTSOLARIA. Lexoti eta Imanol Lazkano bertsolarien erdian Kaxiano. Bertsotan nahiko ongi egiten zuen, eta 1962an Tolosan jokaturiko kanporaketa saioa irabazi egin zuen.

IRITZIA

Pako Aristi ■ IDAZLEA

Itsuen lasaitasun berezi hori

Azkenean hil zaigu Kaxiano! Eta hau diot ez poztu egiten naizelako, duela urte batzuek ere hil zela zabaldu zelako baizik. Beste nonbaiteko itsua zen hila, baina norbaitek gaizki ulertu, eta Kaxianoren heriotza zebilen denen ahotan. Bere belarrietara ere iritsi zen, eta emazteari esan zion: «Tolosa aldera edo agertu beharko dugu ba, jendeak gezurra dela ikus dezan». Eta hala, joan ziren biak Tolosara paseatzera eskutik helduta. Itsuaren

belarri finak entzuten omen zuen tarteka jendearen marmarra, berpiztutako itsua ikustean.

Kaxiano bista onarekin jaio zen, eta bi dohain nabarmenekin: musikarako gogoa eta bertsotarako zaletasuna. Trenarentzako tunela egiten ari zirela, dinamitaren leherketa batek gertu harrapatu eta itsutu zuen, 17 urteren buelta horretan. Eta tunelaren bukaeran argia agertzen den bezala, Kaxianoren bizitzan aukera berriak agertu ziren:

handik aurrera, musika ikasteko, soinu-
nuan trebatzeko eta bertsotan sakontzeko aukera izango zuen. Eta heldu egin zion aukera horri, salbamen horri.

Aire zaharreko harmoniekin jotzen zuen soinua; bertsok dotore moldatzen zituen kantuetara, eta horrela, batzuetan bakarka, bestetan batera eta saxofoiaren laguntzarekin, Euskal Herria pasatu zuen festak eta erromeriak alaitzen.

Umoro oneko gizona, lagun asko zeuzkana, ziur aski berak gaztetan nahi zuen huraxe egitea lortu zuen: artista izatea, ez malkar-zuloetako langile ziztrin. Gaur itsuak kupoi saltzen dakuski-
gu; baina lehen soinu jotzaileak izaten

ziren asko eta asko. Tikitixa Elkartera-ko osatzen ari garen zentsoaren arabera, dozenatik gora itsu dauzkagu soinu jotzaile azken hamarkadetan.

Itsuek, nik ezagutu ditudan apurrek behintzat, izaten dute halako lasaitasun berezi bat bizitzaren aurrean, ikusmenik gabe, bizitzak eragiten digun presa galdu balute bezala. Horietakoa zen Kaxiano.

Elkarriketa egin nion behin. Bere lehen heriotza zela eta, esan zidan: «Jendea gustoa emateagatik ezin hilko naiz ba!». Orain benetan hil da, gizon maitatua zela dioten zurrumurrei arrazoia emateko. Guri dagokigu zurrumuru hori egiazkoa dela demostratzea.